

Kapituluaren gida didaktikoa

Pelikula

Argazki kamera ireki, sartu pelikula txasisa, hortzetan kokatu, argazki kamera itxi eta kamera bera arduratzen da txasisa bere lekuan jartzeaz. Argazki kamera prest daukagu kliska egiteko. Errazegia, agian. Horregatik, bideo honetan, pelikula negatiboak zerez osaturik dauden ikasiko dugu, euren ezaugarriak eta nola erantzuten duten praktikan.

LANTEGIA deitu dugun atalean, argazki kamerarik eta negatiborik gabe zuri-beltzeko argazkia nola lortu azaltzen da.

02,42. - Beirazko plakatik zeluloidera (SARRERA)

Pelikula

05:32 - Euskarriak

07:16 - Zuri-beltzeko pelikula

08:33 - Koloretako pelikula

13:22 - Pelikularen sentikortasuna

15:08 - Bikorra

16:27 - Bikoizketak

17:18 - Pelikularen txasiseko eta kaxako informazioa

18:23 LANTEGIA: Nola lortu zuri-beltzeko argazkia

LANTEGIA: Nola lortu zuri-beltzeko argazkia

Lantegia deitu dugun atala ikusi. Jarraian, ariketa praktikoan erabiliko ditugun materialak aurkeztu, eta aretoa kanpoko argirik ez sartzeko moduan prestatu. Ariketa egiteko bideoan adierazi diren urratsak ematea proposatzen da. Argazki paperean ateratzeko edozer erabil daiteke, ez da derrigorrezkoa hostoa erabiltzea.

Erabiliko ditugun materialak:

Argazkian atera nahi dugun objektua.

Argi indartsua duen lanpara.

Zuri-beltzeko argazki papera.

Lantegia argiztatzeko argi gorria.

ARGAZKILARITZAREN HISTORIA.

Bideo bakoitzaren sarreran argazkilaritzaren munduan izan diren gertakari eta aurkikuntza aipagarrienak adierazten dira. Atal honetan aipatzen diren datuen bidez, argazkilaritzaren historia laburra kontatu nahi da.

Historia bere osotasunean eraikitzeko, gida didaktikoetan ematen diren datuak koaderno batera aldatzea komeni da; horrela, seriearen ikustaldia bukatzean, gertakarien koadroa erabat osatua izango dugu.

Beirazko plakatik zeluloidera

.- 1827an, Nicéphore Niépce fisikariak lehen argazkiak egin zituen.

.- 1832an, Niépcek Daguerrekin batera DAGERROTIPOA eraiki zuen.

.- 1840an, William Henry Fox Talbotek KALOTIPO izenaz bataiatu zuen metodoa eman zuen ezagutzera. Metodo berriaz argazkiaren nahi adina bikoizketa lor zitekeen.

.- 1851n, Frederick Scott Archerrek plaka hezea izeneko asmatu zuen.

.- 1878an, Charles E. Bennetek plaka lehorra izeneko asmatu zuen.

.- 1899an, erroiluan bildutako lehen negatiboak agertu ziren.

Z/b pelikulen egitura. Zeluloidearen ganean emultsio fotografikoa jartzen da eta, horren ganean, emultsioa babesteko, gelatina geruza bat. Zeluloidearen azpian argiaren errebotea saihesteko geruza bat ipintzen da. Geruza honen helburua, negatibora datorren argiak atzealdetik egin dezakeen errebotea saihestea da.

Koloretako pelikulen egitura. Lehenengo, goiko aldean, gelatinazko geruza babeslea. Haren azpian, urdinari soilik sentikor den emultsio geruza. Azpian, urdinaren igarotzea saihesteko, iragazle horia. Jarraian, berdeari soilik sentikor den emultsio geruza eta horren azpian gorriari soilik sentikor den beste emultsio geruza. Hori guztia zeluloide zerrendaren ganean doa. Zeluloidearen azpian, argiaren errebotea saihesteko geruza jartzen da.

Euskarri fotografikoak. Negatiboaren tamainei ematen zaien izena.

Bikorra. Emultsioak dauzkan zilar gatzek eratzen dituzten bikorrak eta argazkiari itxura bikortsua ematen diotenak.

Argi artifizialari egokituriko pelikula. Argi artifizialez argiztaturiko eszenak ateratzeko apropos egindako pelikula.

Argi naturalari egokituriko pelikula. Eguzkiaren argiak argiztaturiko eszenak ateratzeko apropos egindako pelikula.

LIBURUAK

La fotografia paso a paso. Michel Langford.
H. Blume Ediciones. -Madril- 1995

*Hauxe duzu eskuetan erabiltzeko libururik
osoena eta ulerterrazena.*

Macrofotografía. W. Kruyt.
Retrato creativo. P. Zeemeijer.
Técnica fotográfica. W. Broekmyn.
Parramón institutua. -Bartzelona- 1990.

*Hiru liburu hauek, batez ere, praktikoak dira.
Euretan adibide ugari aurkituko dituzu gai bakoitza jorratzeko.*

Seriea osatzen duten bideoak

- 1.- Argazkilaritzaren oinarriak
- 2.- Argazki kamera
- 3.- Pelikula
- 4.- Esposizioaren kalkulua
- 5.- Irudiaren osagarriak
- 6.- Irudiaren egitura
- 7.- Konposaketaren artea
- 8.- Koloretako irudia
- 9.- Tresneria
- 10.-Argiztapen artifiziala
- 11.-Kamera sortzailea
- 12.-Argazkilaritza digitala

ekoizlea:

iadi

Banatzailea:



M. Ortiz de Urbina pintorea, 3
11. bulegoa
01008-Gasteiz
Tel-faxa: 945200608

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILAK
ONETSIA

2002-11-04